

## PARTAIDETZA PRINTZIPIO ETA BALOREAK, AUKERAK ETA BALDINTZAK EGUNGO TESTUINGURUAN

### Sarrera

Gizarte Kontseiluak partaidetza ereduaren inguruan hausnartzeko beharra eta gogoan adierazi zuen 2021ko urte hasieran. Hori dela eta, hiru lan saio monografiko ospatu ditu. Esku artean duzun txostena, hiru lan saio horien sistematizazio eta itzulera txostena duzu.

### Gogoeta eta eztabaidarako markoa

Jarraian zerrendatzen diren galderen bitartez osasun krisiak herritarren partaidetzarako politika instituzionalean izan dituen eraginaren inguruko eztabaida zabaldu da. Horretarako, gizartearen izandako aldaketa nagusiak identifikatzen hasi eta udal zein Aldunditik egin beharrekoen inguruan aritzea izan dute helburu ondorengo galderek:

#### **Printzipioak, baloreak:**

Pentsatu krisia hasi denetik zeintzuk diren eskubide demokratikoei lotutako 2 mugarri garrantzitsuenak –zeintzuk partaidetzari sartu zaizkion “golak”?–. Horietatik abiatuta identifikatu:

- Zeintzuk dira osasun krisiaren kudeaketa ereduak partaidetzaren oinarrietan izandako eraginak?

#### **Partaidetzarako baldintzak:**

- Nola eragin du pandemiak herritarrek partaidetzarako dituzten baldintzetan? Zein gizarte ezberdintasun areagotu dira? Zein kolektibori eragin dio gehien eta nolako da eragin hori?
- Zer aldatu beharko litzateke erakunde publikoen (lurralde zein toki mailakoen) jardunean ezberdintasun horiek eragiteko?

#### **Partaidetzarako aukerak:**

- Zein da herritarren partaidetzarako politikek, bai GFAn bai udaletan, horretan guztian izan beharko luketen funtzioa?
- Nola bermatu herritar eta kolektibo horien guztien parte hartzea?
- Zer litzateke kalitatezko partaidetza sustatzea? Zer beharko litzateke horretarako?

## Bilera datak, helburuak eta emaitzak

### LEHEN SAIO MONOGRAFIKOA

Data: 2021/3/17

**Helburuak:** COVID-19ak eta bere kudeaketak partaidetza printzipio, eskubide eta baldintzetan izan duen eraginaz hausnartzea.

**Emaitzak:**

#### PARTAIDETZARI lotutako ARGIAK eta ITZALAK:

Argiak	Itzalak
Pandemiak sormen maila handiagoa eskatu du.	Pandemiak prozesu asko urgentziaz birdiseinatzerara behartu gaitu.
Interes handiagoa prozesuetan parte hartzeko.	Pertsonak elkartzeko arloan izandako murrizketek bide eman dute partaidetza edo deliberazio prozesu asko geldiarazteko edo arbuiatzeko.
Lankidetzeta eta sorkuntza lana, beldur horiek gainditzeko.	Beldur asko egotea.
Elkartasun kolektiboa administrazio publikoen protagonista-zereginaren gaineratik egon dira.	Administrazioaren eta herritarren arteko etena nabariagoa izan da. Administrazio publikoa herritarrengandik oso urrun dagoela sumatu da.
Mekanismo hibridoak indartu behar diren identifikazioa, abiapuntutzat hartuta digitalizazioak eskaintzen dituen abantailak, baina alde batera utzi gabe presentzialak daukan oinarriko zeregina.	Eten digitala. Harremanak hautsi egin dira.
Aukera bat natibo digitalek beren ahotsa eskain dezaten, parte har dezaten, eta partaidetza prozesuetan integratuak izan daitezten.	Eten digitala. Parte hartu ezin duten kolektiboak.
Irtenbide irudimentsuen bilaketa, herritarren ahotsa presente egon dadin prozesuetan. Ildo horretatik ere, aprobetxatzea beste eremu geografiko batean egiten ari denetik ikasteko.	Partaidetza prozesuak, bertan behera utziak edo atzeratuak.
Pandemiak aukera bat eman du familiako harremanak sendotzeko.	Pandemiak harremanak hoztu ditu. Adineko pertsona asko autokonfinamendura behartuak gertatu dira.

**PARTAIDETZA ESKUBIDEetan izandako eraginaren MUGARRIAK eta ARRAZOIAK:**

Mugarriak	Arrazoibideak
1. INFORMAZIOA edukitzea oinarritzko printzipio bat da, eta horren galera bat gertatu da.	1. Gehiegizko informazioak desinformazioa eragiten du. Jasotako informazioaren egiazkotasuna zalantzakoa izan da.
2. BERDINTASUN printzipioa. Gizartean desberdintasunik ez balego bezala arauak aplikatzeak desberdinkeriak gehitzen ditu.	2. Desberdinkeria horren adibidetzat jo dira emakumeen egoera (konfinamenduko indarkeriaren ondorioak), eta adinen nahiz baldintzen arabera eten digitala.
3. ERABAKITZEKO AHALMENA galtzea. BERTIKALTASUNA handitzea sistema politikoan.	3. Teknizismoak erabili dira, eta urgentziaren aitzakia.
4. Mugikortasun librea galtzea edo mugatzea.	4. Horrek lankidetzazailtasunak sortzen ditu.
1. Mugikortasun librea galtzea edo mugatzea.	1. Teknologia berriak, aukera berriak, baina baita eten handiagoa ere.
2. Biltzeko/mugitzeko askatasuna galtzea edo mugatzea.	2. Bere argi-itzalak ditu. Prozesu batzuk geldiarazi ditu, baina baita proaktibitatea handitu ere.
3. Administrazioa herritarrengandik urruntzea.	3. Batez ere, funtzionarioak. Hala ere, sare publikoaren beste eremu batzuetan, egoerak eskatzen zuen neurrian erantzun dute, baina gu azkenak izan gara erantzuten.
4. Segurtasunaren eta askatasunaren arteko oreka aldatzea.	4. Segurtasuna desorekatzea.

**PARTAIDETZA BALDINTZETAN IZANDAKO ERAGINA (zertan eragin du, nola eragin du eta nortzuei eragin die):**

Baldintzetan izandako eragina	Eragindako taldeak	Eragin mota
Zaintzaren alternatibak/antolaketa	Emakumeak, adinekoak eta haurrak	Lan gainkarga/denbora falta
Denboraren eta lanaren antolaketa		Lan gainkarga/denbora falta
Espazio falta ideiak alderatzeko. Debaterako zailtasunak		Debate falta. Norabide bakarreko joera
	Kolektiboen arteko harremanak	Giza kolektiboen arteko marjinak asko nabarmendu dira; haien arteko distantzia handitu egin da; eta harremana konfrontaziokoa izan da.
Baliabideak eta irisgarritasuna		Sektore batzuei komunikazio aukerak gehitu zaizkie, gaitasun handiagoa dutelako teknologiek (gazteak), eta beste batzuk, berriz, kanpoan gelditu dira (baliabide faltagatik edo ezjakintasunagatik).
Indarkeria handitzea eta indarkeriarako baldintzak gehiagotzea	Emakumeak eta adingabeak	
Gizarte egitura: erakunde jakin batzuen garrantzia, eta egoera aldaketa (familia, lagunak, partaidetza)		Kanpo harremanak asko hoztu dira, eta barne harremanak estutu egin dira
Sorkuntza kolektiboa handitzea (esaterako, herri mugimenduetan eta enpresetan)		

## BIGARREN SAIO MONOGRAFIKOA

**Data:** 2021/7/5

**Helburuak:** pandemiaren eragina kontuan hartuta, zeintzuk dira herritarren parte-hartzearen arloan **indartu** eta **arindu** beharreko alderdiak eta joerak?

**Metodologia:** Banaka, taldeka eta plenarian lan eginez ondoko bi galdera hauei erantzun zitzaien:

1. Covid Krisiak, Partaidetza printzipio/baldintzetan izan duen eragina aintzat hartuta: Zer indartu/bultzatu beharko genuke? Eta nola?
2. Covid Krisiak, Partaidetza printzipio/baldintzetan izan duen eragina aintzat hartuta: Zer joera itzali, leundu edo baztertu beharko genuke? Eta nola?

**Emaitzak:** Bi galdera horiei emandako erantzunekin bi mapa kontzeptual osatu ditugu, eta ondoko irizpide hauen arabera koloreztatu ditugu:


**Berdea:** indartu beharreko elementuak


**Gorria:** lurraldearekin lotura duten ekarpenak.

**Urdina:** baliabideekin zerikusia duten ekarpenak

**Morea:** bitartekoekin zerikusia duten ekarpenak

**Horia:** kulturarekin zerikusia duten elementuak







## HIRUGARREN SAIO MONOGRAFIKOA

Data: 2021/10/8

**Helburuak:** Pandemiak Partaidetza baldintzetan utzitako arrastoari erreparatuz, Gizarte Kontseiluaren iritziz Indartu eta leundu beharreko partaidetza joerei begira, HPZtik egiten ari dena nahikoa den ala ez hausnartzea eta gomendio zerrenda egitea (lehentasunak, estrategiak eta ideia berriak gehituz).

**Bileraren metodologia:** Galdera horiei erantzun ahal izateko, Herritarren Partaidetzarako Zerbitzuak sortutako dokumentu bat landu du. Bertan, lehenengo bi saioetako gogoetak jaso dira eta 2019-2023 Herritarren Partaidetzarako Programan, OGPan eta Etorkizuna Eraikizen proiektuetan jasotako ekintzekin gurutzatu dira. Ikusi sistematizazioaren eranskina. Dokumentu hori abiapuntutzat hartuta, lan-eremuen araberrako taldeetan eta txandakako sistema batean lan egin da, pertsona guztiek eremu guztiei ekarpena egin ahal izateko.


### Landutako eremuak:

- |   |   |
|---|---|
| 1. EREMUA. HERRITARREN BETEBEHARRAK LANDU           | 8. EREMUA. PARTAIDETZA KANALAK IREKI              |
| 2. EREMUA. LIDERGO PUBLIKOAK INDARTU                | 9. EREMUA. TOKIKO IKUSPEGIA INDARTU               |
| 3. EREMUA. PARTAIDETZA PROZESUETAKO SORMENA INDARTU | 10. EREMUA. PRESENTZIALA LEHENETSI                |
| 4. EREMUA. FORU ARAUAREN TRESNAK MARTXAN IPINI      | 11. EREMUA. BUROKRAZIA GUTXITU                    |
| 5. EREMUA. PROTOKOLO GIDAK OSATU                    | 12. EREMUA. ERAKUNDEEN EROSOTASUN EREMUA MURRIZTU |
| 6. EREMUA. ERAKUNDEAREN ERREBISIO KRITIKOA          | 13. EREMUA. ARRAKALA DIGITALA TXIKITU             |
| 7. EREMUA. PARTAIDETZA KULTURA INDARTU              | 14. EREMUA. ERAKUNDEAREKIKO MESFIDANTZA LANDU     |

**Landutakoaren emaitzak:** Hirugarren bilera monografikoak emandako emaitza jaso dugu hurrengo orrietan. Horiek lau taldetan sailkatu ditugu: 1. proposatutako lehentasunak. 2. Esperientzia zehatzak: bileran zehar aztertu beharreko edo adibide/eredu gisa baliagarriak izan daitezkeen ekimenak. 3. Elementu berriak: atal honetan bereziki azpimarratu diren gakoak jaso ditugu, horietako batzuk berriak ez diren arren indar berezia egin zenez gero nabarmendu nahi izan ditugu. 4. Debateak: hemen desadostasuna edo gaien sakontzeko beharra dagoela iruditu zaizkigun gaiak sartu ditugu, etorkizunean lan/gogoeta ardatz bilkatu daitezkeenak alegia.



## LEHENTASUNAK



- **ERREGELAMENDUAREN GARAPENA:**

- Foru arauaren garapenerako eta herritarrek haien aukera eta eskubideak egikaritzeko Erreglamendua garatzea funtsezkoa da. *“Erreglamendua; prozesu parte-hartzaileak gidatzeko, politika publikoen diseinuan parte hartzea herritarren eskura jartzeko eta emaitza eraginkorrak lortzeko, tresna gisa garatu behar da.”*
- Erreglamenduaren garapenerako ondorengo irizpideak azpimarratu dira: -Esperientzian oinarrituta egotea (onak eta txarrak). -Sitematizazioaren garrantzia. -Etengabeko elkarrizketan egon beharra praktikarekin - Erantzunkizun bakoitza norena den argi izatea. - Erabilgarritasun printzipioa begibistatik ez galtzea.

- **PARTAIDETZARAKO GUTXIENKO IRIZPIDEEN GIDA:**


- Gidaren helburuak: *Krisi egoeren aurrean (baina ez soilik), Partaidetza ikuspegitik egon beharreko marra gorri eta berdeak jasoko dituen dekalogo/irizpide bilduma/protokoloa garatu.*
- Gidako erabiltzaileak: Aldundiak, udalek, herritar antolatu eta ez antolatuek aldeztu aurretik landuta izango duten gida.

- Erreglamenduarekin lotura: Agian erregulamenduan bertan jaso behar da (nahiz eta gero administrazio bakoitzak bere partaidetza plana izan)<sup>1</sup>.
- Gidaren funtzioak: Orientabideak, pedagogía, bermea, heldulekua, trebakuntza: *“Genero-protokoloaren konparaketa modukoa eginez, eredu itxi bat baino zerbait gehiago izan behar du. Gida bat, egoera jakin batzuetan nola jokatu jakin ahal izateko, orientabideak izateko (zeintzuk diren marra gorriak, ikasitakoaren funtza, etab.), pedagogía eta Prestakuntza tresna”.*
- **GIPUZKOA ESKOLA IREKIA (GEI): Topagunea, eztabaida publikoa:** GEIk daukan potentzialtasunaren barruan ondoko hauek azpimarratu dira: - politikari/teknikari eta herritarren arteko **topagune** iraunkorra izatea. –**Elkarrizketa publikoa** ahalbideratzea (UIK-ekin elkarlanean posible balitz, delako Elkarrizketa Publikorako Foroa<sup>2</sup> sortuz), horrek deliberazioa eta lidergotza kolektiboa indartuko lituzke.
- **LIDERGOTZA PARTEKATUA BULTZATU (Erakundeak eta gizartearen artean):** Horretarako ondoko hauek azpimarratu dira:
  - Erakundeko arduradunen inplikazioa, presentzialitatea handituz (deialdiak egiten hasi, presentzia fisikoa, zuzeneko parte hartzeak.
  - Akonpainamendu tekniko eta sistematizazio lanen garrantzia.
  - Elkarlana beharrezkoa da, sorkuntza sozio-komunitarioa.
  - Kontu ematea eta gardentasuna.
  - Hezkuntzarekin lotura, elkarlana eta ikaspenen trasferentzia.
  - Fasilitazioaren garrantzia.
  - Gazteak, nagusiak eta zaugarritutako sektoreekin lan zehatza egin.
- **ENTZUKETA AKTIBOA:** Propio horretarako bideak ireki (egun zeharka eta partzialki egiten da), eta aktiboa izan dadin, aintzat hartu dela adierazi. “Oso esperientzia errealak daude herritarren postontziak bezalako esperientziak behar bezala funtzionatzen dutela esateko. Postontzi horien bidez sortzen den informazioa aprobetxa dezakegu herritarrak parte hartzeak dakarren esperientzian sartzeko, prozesu publikoetan, komunitarioetan...”
- **Etorkizuna Eraikizekin lotura –EE-.**
  - Herritarren Partaidetza Zerbitzuaren ezagutza eta inplikazio handiagoa Etorkizuna Eraikizen garatzen ari diren eta garatuko diren proiektuekin.
  - Etorkizuna Eraikiz eta Arantzazulab garatzen ari diren prozesuen emaitzen inguruko informazioa Gizarte Kontseiluari emateko beharra.
  - EEko ikaskuntzak sare ezberdinekin partekatu.

---

<sup>1</sup> ERREGELAMENDUA ARAUAREN GARAPENA DA. ARAUAN TXERTATUTA AGERTU BEHARKO LITZATEKE ETA HORRETARAKO BATZAR NAGUSIETATIK PASATU BEHAR DA. KRISI-GARAIETAN ARAUAN JASOTAKO ESKUBIDEEI ETA BETEBEHARREI NOLA HELDU BEHAR ZAIEN HAUSNAR LITEKE.

<sup>2</sup> AGENDA PUBLIKOAN GARRANTZITSUAK DIREN GAIEN INGURUAN, HERRITARREN ARTEAN ADITUEK GIDATURIKO ELKARRIZKETA PUBLIKORAKO ESPAZIOAK edukitzea




**HIP:** Krisi egoerarako irizpide/dekalogo/protokoloa dela eta Aragoiko gobernuak garatutako HIP esperientzia aipatu da. Bertan gobernantzari dagokionez 6 bektore ezberdin lantzen dira (irekia, trasbersala, azkarra, esperimentatzea, kolaboratzailea eta digitala). Proposamen honek salbuespen egoeretan modu azkarrean baina era zabal eta inklusibean erabakiak hartzea probesten du. Gainera leku ezberdinetan inplementatu da. Info gehiago:


[http://cpi.aragon.es/wp-content/uploads/2021/10/2.-LAAAB\\_Hexagono-de-la-innovacion-publica-HIP-y-ecosistema-del-LAAAB\\_Carlos-Olivan.pdf](http://cpi.aragon.es/wp-content/uploads/2021/10/2.-LAAAB_Hexagono-de-la-innovacion-publica-HIP-y-ecosistema-del-LAAAB_Carlos-Olivan.pdf)

**Gasteiz eta Nafarroa:** Gasteizko udalaren esperientziari begiratzea komeni da arau eta irizpide komunak ezarri dira sail guztietan (partaidetza inplementatzea behartzen duelako). Edo Nafarroako, departamentu guztietan **Partaidetza unitate** bana dute.

**Debagoiena: Entzuketa aktiboa:** Online edo offline mundutik datorrenaren arabera, parte-hartzearen beste ikuspegi bat garatzea. Adibide gisa jarri da adimen artifiziala erabiltzea online parte hartzeko moduak ulertu ahal izateko. Etorkizuna Eraikiz garatutako **entzute aktiborako plataforma birtualeko** kasua azaldu da, esperientzia horretatik batez ere gaztearekin konektatzeko ikaskuntzak atera daitezkeelako.

**Partaidetza liburu zuria:** Eeko Ongizatearen Think Tank-aren baitan partaidetzaren liburu zuria egin dute.





- **ARRAKALA KOMUNIKATIBOA:** Entzuketara aktiborako bitartekoak/burokrazia murriztu/partaidetza lenguai komuna/denbora: Erakundeetatik eta elkarteetatik zabaltzen diren mezuetan, herritarren artean ulertzeko gai direnak eta gai ez direnen arteko ARRAKALA gero eta handiagoa sortzen ari gara. Komunikazioa eta informazioaren kontzeptuak nahastu egiten ditugu.
  - Lehendabiziko oinarria herritarrek ulertzeko moduan azaltzen jakitea da. Lantzen dugun komunikazioak: ARGIA izan behar du, gauzak APALKI eta HUMILTASUNEZ aurkeztu behar dira; PEDAGOGIA egiteko moduko HIZKUNTZA erabiliko dugu; ULERKORRA-IRISGARRIA den modu batetan KOMUNIKATU behar dugu; KOMUNIKABIDEEK eskeintzen dizkiguten KOMUNIKAZIO BIDE BERRIAK ERABILI behar ditugu (tik-tok en berriak, bideoak...).
  - Partaidetza lenguai komun baten beharra herritar, erakunde eta enpresen artean.

- Prozesu desberdinen aurrean komunikazioaren azkartasunak, gauzak azkarregi garatzeko-lantzeko premia sortzen digu eta prozesuak ez dira ganoraz burutzen. Prozesuen kalitatea eta eraginkortasuna bermatzeko, denbora hartu beharra dago (gutxieneko tenporalizazioa existitu behar da).
- **HEZKUNTZAREKIN LOTURA:** *“Oso kezagarria da haurrekin eta nerabeekin parte-hartzea bultzatzeko egiten ari diren lana, ikuspegi kontraesankorretan sartzen baita: alde batetik, parte hartzearen garrantzia nabarmentzen da baina, beste alde batetik, oztopoak ikusten dira, adibidez, eskolaren esparruan parte hartzeko. Hezkuntza munduarekiko konplizitatea bilatu behar da eta parte-hartzea gazteen hizkuntzara hurbildu behar da”. “Hezkuntzaren munduarekiko konplizitatea bilatu behar da, bai eta gazteengana gehiago hurbildu eta gazteekin parte-hartzearen kultura landu ere, beren hizkuntzan eta beren espazioetan oinarrituta”.*
- **ARRETA BEREZIA SEKTOREKA/arrakala digitala:** *“Belaunaldien arteko aldeak daude, eta adinekoak eta gazteak, esaterako, parte hartzeko espazioetatik kanpo geratzen dira askotan. Parte hartzeko hainbeste aukera ez duten kolektiboengan jarri behar da arreta. Lehenasunezkoa izan behar du estrategia horiek integratzeko estrategiak garatzea, hala nola ad hoc prozesuak eta parte hartzeko agertoki bereziak garatzea, kolektibo bakoitzaren premien arabera”.*
- **PARTAIDETZA GFAn eta UDALETAN TRASBERTSALIZATU. BARNE PROTOKOLOA:** *“GFAko departamendu ezberdinetan beraien jarduera Partaidetza ikuspegitik ebaluatzea eta emaitza horiek nola landu hausnartzea. Horrek GFA eta herritarren arteko distantzia txikituko luke. Partaide egin ahala jendea hurbilago sentituko da”. “Hausnarketa kritikoa egin, GFAk bultzatzen dituen partaidetza-prozesuen barruan zer funtzionatzen duen eta nola hobetu dezakegun identifikatzeko, parte-hartzea areagotzeko eta ekintzen gainjartzea saihesteko ». Sailek babestutako barne-protokolo bat sortzearen garrantzia azpimarratu da baina diputatu nagusiak berretsia. Horrela Partaidetza Zuzendaritzak beste zuzendaritzei lanak eskatzeko tresnak izan ditzan”. “Partaidetza beste eredu bat behar da ez dira prozesu espezifikoak egin behar, partaidetzarekin zerikusia daukaten irizpideak martxan jartzea baino alor guztietan”.*

## DEBATEAK

Ausazko deliberazio  
prozesuen  
nolakotasuna

ON line ETA aurrez  
aurreko  
PARTAIDETZA

Kapazitazioa  
ala  
formakuntza

Partaidetza  
ala/eta  
governantza

- **Ausazko deliberazio prozesuen metodologia:** deliberaziorako eredu ezberdinak daude, eta ausaz egiteko moduak ere. Esate baterako, kide batek honakoa dio: “Ez dator bat deliberazio zozketa publikoaren ereduarekin, ez baita adierazgarria eta parte hartu nahi ez duten pertsonak egondaitezke. Herritarrak parte hartzen emandako denboragatik sarituko diren deliberazio prozesuak egitea proposatzen du, motibazioak desberdinak izan baitaitezke (ekonomikoak barne)”.
- **On eta OFF partaidetza:** kide batzuk aurrez aurreko Partaidetza gainbaloratuta dagoela adierazi dute (eta persona batzuk gainordezkatuak daudela ere): “Jendeari parte hartzen lagunduko dioten kanalak sortu behar dira eta Kanal anitzeko tresnak berritu”. Beste kide batzuk presentzialtasuna berreskuratzeko premia ari dira: “pandemiak zerbait irakatsi badigu, presentzialtasuna parte-hartzearen kalitatea bultzatzeko funtsezko osagaia dela da. Askotan pentsatzen da gazteek online kanalak nahiago dituztela, baina ez da horrela, pandemiak argi utzi du pertsonen arteko harremana beharrezkoa dela prozesu horietan”.
- **Kapazitazioa ala formazioa:** Trebakuntza, formazioa eta kapitazioa kontzeptuetaz aritu dira, ezagutza sortu eta transmititzeko modu/eredu ezberdinak adierazi nahirik: *Solasaldi magistralen eredutik aldendu eta ahaleginak praktikara bideratu*. Prestakuntza baino gehiago, gaikuntza: *Prestakuntza-ikuspegia gainditu behar du, GEI parte hartzeko eredu desberdinak ezagutzeko, ereduak eta esperientziak kritikara zabaltzeko gunea izan behar du*.
- **Partaidetza eta gobernantza:** Kide batzuk partaidetzatik gobernantzara igaro beharraz ari dira: *“Parte hartzea asko lantzeko arrisku handia dago, etorkizuna Open data+gardentasuna+kontu-ematea+parte-hartzearen ezagutzak integratuko dituen gobernu-teknikari ireki baten norabidean doanean*. *“Parte-hartzearen kontzeptua gainditzearen eta Gobernu Irekira zuzentzearen garrantzia”*. Eta beste batzuk gauza ezberdinak direla azpimarratzearekin batera partaidetzan sakontzearen aldeko hautuaz ari dira: *“Iraganean, herritarren parte-hartzearen gaia esparru guztietan sartu nahi izan zen, baita enpresetan ere, eta orain gauza bera gertatzen da gobernantzaren gaiarekin. Bi kontzeptuak berdinak ez direla eta behar bezala ez bereizteak kezkatzen duela azpimarratzen du”*.